

# Teknologia berrien erabilpena hizkuntzen irakaskuntzan

(Using new technologies in language teaching)

Sagasta, Pilar; Usabiaga, Mikel  
Mondragon Unib.  
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fak.  
Dorleta auzoa, z/g  
20540 Eskoriatza

BIBLID [1137-4446 (2000), 11; 39-48]

---

*Zer dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak? Non edo nola gauzaten dira gure gaurko irakaskuntzan? Zer nolako erabilera ematen diegu gure Fakultatean ingelesaren irakaskuntzan? 1997-98 ikasturtean, praktikan eta benetako egoeretan, 30 CD-ROM desberdin eta interneta (www eta e-posta) nola erabili diren ikusiko dugu. Horrezaz gain, euskararen irakaskuntzarako "Irakaslea I" multimedia CD-ROMa (Innovalingua 1997 saria eta epai-mahiaren aipamen berezia EUR'Innovalangue 1997 sarian) nola diseinatu zen azaltzen da. Gure Fakultateak 15 urte baino gehiago darama Teknologia hauetan oinarritutako ikasmaterialak sortzen, argitaratzen eta erabiltzen. Azkenik, gure ondorioak eta ikasturte berrirako (1998-99) sartzen ari garen hobekuntzak azalduko ditugu.*

*Giltz-Hitzak: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak. Ingelesa. Multimedia. Internet. Hizkuntzen irakaskuntza. Atzerriko hizkuntza. CD-ROMak. E-posta. Euskararen irakaskuntza.*

*¿Qué son las Nuevas Tecnologías de la Información y de la Comunicación? ¿En qué y cómo se plasman en la enseñanza actual? ¿Qué utilización les damos en la enseñanza del inglés en nuestra Facultad? Se repasa la forma en que han sido utilizados 30 CD-ROM diferentes y la red Internet (www y e-mail) durante el curso 1997-98. Además se explica cómo fue diseñado "Irakaslea I", CD-ROM multimedia galardonado con el premio Innovalingua 1997 y con una mención especial en el premio EUR'Innovalangue 1997. Nuestra Facultad lleva más de 15 años produciendo, publicando y utilizando materiales didácticos basados en estas Tecnologías. Finalmente, exponemos nuestras conclusiones y las mejoras que estamos introduciendo para el nuevo curso (1998-99).*

*Palabras Clave: Nuevas Tecnologías de la Información y de la Comunicación. Nuevas Tecnologías. Inglés. Multimedia. Internet. Enseñanza de lenguas. Lengua extranjera. CD-ROMs. E-mail. Enseñanza del euskara.*


*Que sont les Nouvelles Technologies de l'Information et de la Communication? Où et comment sont-elles adaptées à l'enseignement actuel? Comment les utilisons-nous dans l'enseignement de l'anglais dans notre Faculté? On étudie la façon dont ont été utilisés 30 CD-ROM différents et le réseau Internet (www et e-mail) pendant le cours 1997-98. On explique ensuite comment a été conçu "Irakaslea I", CD-ROM multimédia récompensé avec le prix Innovalingua 1997 et avec une mention spéciale lors de la remise du prix EUR'Innovalangue 1997. Notre Faculté produit, publie et utilise depuis plus de 15 ans du matériel didactique basé sur ces Technologies. Finalement, nous exposons nos conclusions et les améliorations que nous sommes en train d'introduire pour le nouveau cours (1998-99).*

*Mots Clés: Nouvelles Technologies de l'Information et de la Communication. Nouvelles Technologies. Anglais. Multimédia. Internet. Enseignement des langues. Langue étrangère. CD-ROMs. E-mail. Enseignement de l'euskera.*

Gaur egun "Teknologia Berriak" hitzak edozertarako erabiltzen dira, eta azkenean ez dakigu zertaz ari garen hitz egiten. Gure kasuan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriei (IKTB) buruz ari gara.

### **Eta zer dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak (IKTB)?**

Informazioa eta Komunikazioa helburu duten medio desberdinak (testua, hitza, irudia, soinua, e.a.) garraiatzeko, metatzeko, gestionatzeko edota kodetzeko balio dezaketen sistematik; edozein dela, horiek egiteko erabiltzen diren oinarriak eta bideak. Horrela esanda, badi-rudi arbelak ere bete ahal dituela baldintza horiek. Baina, erabiltzailearen aldetik beste hiru ezaugarri azpimarratu behar dira: informazioan zehar nabigatzeko aukera, jasotzen denarekin elkarrekiteko aukera, tamaina edo kopuru handiak.



(Ikusi 1. Irudia)

### **Eta hau dena non edo nola gauzatzen da gure gaurko irakaskuntzan?**

Gizarte bakoitzak bere Teknologia Berriak izan ditu. Erromatarren garaian "via" deituriko bideak izan ziren, Errenazimendu garaian zaldi bidezko postak. Bere garaian garrantzi handia izan zuten Informazioaren eta Komunikazioaren aldetik. Teknologien ikuspegitik, bere garairako Teknologia Berriak ziren eta aldaketa handiak ekarri zituzten. Horrela, garai desberdinak aztertzen joan gintezke, baina ez da hori gure gaurko honen helburua. Ikus dezakezuenenez, garai bakoitzak bere Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak ditu.

Ikus ditzagun orain arte oso erabiliak izan diren Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia batzuk: inprenta testuentzako, irratia/telefonoa ahotsa eta soinuarentzako, argazkigintza irudi finkoarentzako, telebista/zinema irudi mugikorrentzako eta soinuarentzako. Hauek guztiak bi ezaugarri dituzte amankomunean:

- Medio bakarrentzako balio dutela: edo testua, edo ahotsa/soinua, edo irudia/soinua, e.a.
- Aurrena pertsona talde handi bati mezuak bidaltzeko sortu zirela. Erabiltzaile arruntak bakarrik mezuak jasotzeko aukera zuen, eta hainbat denbora pasa arte ez ziren sortu edozeinek edozeini mezuak bidaltzeko aukerak: inprenta txikiak/fotokopiagailuak, magnetofoiak/kaseteak/bideo-zintak/bideo-kamerak, argazki makina arruntak eta errebelatu azkarak eta merkeak, e.a.

Teknologia hauek guztiak erabili izan dira hizkuntzen irakaskuntzan. Hasieran urruti zegoen herrialdeko hizkuntza jasotzeko: argitalpenak, prentsa, testu liburuak, irrati emisioak, kaseteak, zinema, telebista, bideoa. Kasu guztietan hizkuntza ikasten ari zen ikaslea informazio horren jasotzailea zen. Informazioa prozesatu eta landu egiten zen, baina ikasleak ez zuen sortzeko edo elkarrekiteko aukerarik. Bigarren pausu batean ikasleak bere ahotsa edota irudia grabatzeko aukera izan zuen. Oraingoan, sortzailea ere bazen eta komunikazioa lortzeko bidean jarri zen.

### **Zer gertatu da gure gaurko gizartean? Egoera hori aldatu da? Zerk aldatu du?**

Gure ustez egoera erabat aldatu da gure gaur egungo gizartean, eta aldaketa horren eragileak mikroelektronikaren eta informatikaren munduak sortu dituen aukera berriak izan dira. Ikus ditzagun aldaketa horiek:

- Orain arteko informazioaren eta komunikazioaren teknologia guztiak asko merketu dira eta erabiltzeko inoiz baino erosoagoak dira. Gure gizarteko ikasle gehientsuenen esku egoteko aukera dute.
- Multimedia erako giroak sor daitezke modu eroso eta merkean. Hau da, oraintxe nabilen bezala, hainbat tresnez lagundurik (retroproiektorea, bideo-kainoia, ordenadorea, mikroa, e.a.) medio desberdinak (transparentziak, testu eta irudiekin, bideoa, grafikoak, e.a.) batera erabiltzen ditut.
- Multimedia erako aparatu berriak sortu dira. Aparatu edota tresna bakar batean ditugu medio guztiak batera: testua, ahotsa, irudia, soinua, e.a. Tresna hori multimedia erako ordenadorea da.
- Inoiz baino informazio kopurua handiak heltzen zaizkigu eta maneia ditzakegu, aukatzen jakitea arazo handia bihurtuz. Gainera informazio hau bat-batean hel daiteke gure planeta honetako leku batetik bestera. Hor ditugu telefono sarea, komunikazioetarako satelite sareak (telebista bereziki), internet-a.
- Ikasleak, multimedia edota multimedia eran lana eginez, momentu berean tresnarekin elkarrekiteko aukera du, hau da, informazio iturriarekin elkarrekiteko aukera du.
- Ikasleak, multimedia edota multimedia eran lana eginez, informazioan zehar nabigatu dezake, bere interesen arabera.
- Ikasleak, multimedia edo multimedia eran lan eginez, gure planeta honetako ia edozein lurraldetako pertsonekin jarri daiteke harremanetan modu azkarrean eta erosoan, nahi izanez gero bat-batean.

Aldaketa hauek guztiek era honetako tresna hauetan gauzatu dira:

- Eskoletako irratiak
- Etxerako soinu-tresneria

- Satelite bidezko telebistak
- Etxerako bideo-tresneria
- Ordenadoreak
- Multimedia ordenadoreak
- Internet-a
- Eta abar eta abar

### **Gauzak horrela, zer nolako eragina dute aldaketa hauek hizkuntzen irakaskuntzan?**

Orain arte oso zaila egiten zen bertara ekartzea urruti zegoen lurraldeko hizkuntza eta kultura, zaila egiten zen ikasleak horrelako giro batean elkarrekitea eta ikastea, zaila egiten zen ikasprozesua ikasle bakoitzari egokitzea.

Ez gara luzatuko arazo bakoitza nola konpondu daitekeen adieraziz, hoberena aukera berri hauei zer nolako erabilera praktikoa ematen zaien ikustea izango da. Aurrena Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan oinarritutako ikasmaterial bat nola egin zen ikusiko dugu, euskara ikasteko Irakaslea I multimedia CD-ROMa, eta, ondoren, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Teknologik hauei ingelesaren irakaskuntzan zer nolako erabilera ematen diegun ikusiko dugu.

**Pantailan duzue Irakaslea I CD-ROMa.** Produktu hau orain dela 2 urte bukatu zen. KB taldeak egin da eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak argitaratua. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak gestionatzen duen EIMA Programaren laguntza jaso du eta 1997an Innovalingua saria irabazi ondoren, EUR'Innovalangue sarian epai-mahiaren aipamen berezia lortu zuen. Euskara ez dakitenentzako edota oinarritzko maila dutenentzako prestatua dago. Ikus ditzagun produktua diseinatzerakoan kontuan hartu ziren irizpideak:

- Multimedia erako teknologiez baliatuz bizitza errealeko hainbat momentu simulatu eta landu. Ikaslea euskal munduan murgildu.
- Bizitza errealean gertatzen den bezala ikasleari nabigatzeko aukera osoa eman. Produktuaren mailaketa ondo egiten bazen ikaslea bera jarriko zen bere mailan.
- Hasieratik ikaslea tresnarekin, sortutako mundu horrekin elkarrekintzan egon behar zen, bizitza errealean gertatzen den bezala.
- Errefortzuzko inguru atsegina diseinatu. Sortu behar genuen mundu hori atsegina izan behar zuen ikasten ari zirenentzako.
- Ikasleak berak aurkitu behar zituen erantzun onak, makinak ez zizkion emango, baina bai aurkitzen lagundu.
- Garrantzitsuena ez zen gramatika ikastea (nahiz eta bertan lantzen den), euskaraz egitea baizik.
- Gelan zein bakarka ikasteko balio behar zuen
- 12 urtetik gorako ikasleentzako izan behar zuen
- Edukiak komunikazio funtzioen inguruan antolatutak egon behar ziren

Bertan euskal mundu osoa sartu da, Agirretarren familiarena: testuak, soinua, ahotsa, irudia, e.a. eguneroko hainbat egoeratan. Ikasleak elkarrekiteko hainbat aukera ditu, denak errealitateari hurbilduz, medio guztiak integratuak daude oinarri bakar batean:

- berak nahi duen moduan nabiga dezake bertan
- bertako pertsonaiekin hitz egin, pertsonaia baten lekua hartu, bere ahotsa grabatu eta konparatu
- bertan jolastu
- kankak entzun eta osatu
- euskal geografia eta ohiturak ikusi eta landu
- eta beste hainbat, zerrenda luzea osatuz.

Adibide hauetan ikus dezakezue, informazioa medio desberdinetatik batera dator eta benetako komunikazio egoera sortzen da. Ikaslea hasiera-hasieratik hasten da

- euskaraz entzuten eta hitz egiten
- informazioa jasotzen eta sortzen
- informazioa aukeratzen bere irizpideen arabera
- hainbat lan euskaraz egiten
- euskal kultura ezagutzen eta bertan parte hartzen

Zenbat hitz beharko nituzke oraintxe ikusi duzuen idatziz adierazteko? Ikus dezakezue, medio desberdinen integrazioak badu abantaila franko.

Horrelako lanak taldean egin behar dira ezinbestean. Talde honetan psikologoak, filologoak, irakasleak, ikasleak, gidoigileak, diseinadoreak, marrazkilariak, aktoreak, bikoiztaileak, musikoak, e.a. parte hartu zuten.

Goazen orain Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berri** hauei zer nolako erabilera ematen diegun ingelesaren irakaskuntzan ikustera.

Esan beharra dago, esperientzi hau ez dela bat-batean sortzen. Mondragon Unibertsitatea bihurtu aurretik Eskoriatzako Irakasle Eskolak ia bere sortzetik landu ditu Teknologia Berriak, bai ematen zen irakaskuntzan bertan, bai hainbat ikasmaterial sortuz. 15 urte baino gehiagoko bide honetan irakaskuntzarako kasete, bideo eta CD-ROM asko sortu dira, guztira 100dik gora, eta hainbat sari irabazi. Urte hauetan egin den lanaren ondorioz, Fakultateko ikasleek eta irakasleek hainbat teknologia erabiltzen dituzte eguneroko irakaskuntzan integraturik: audioa, bideoa, retroproiektorea, ordenadorea, CD-ROM-a, internet-a, posta elektronikoa, e.a.

Une honetan, besteren artean, kurtsoz kurtso berritzen eta osatzen ari garen ekipamendu hau dugu:

- 30 multimedia ordenadore ikasleen eskueran goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara
- 20 multimedia ordenadore irakasleen lanerako eta administrazioerako
- Ethernet sare informatiko azkarra ordenadore guztiak lotzen dituelarik
- retroproiektore, pareteko pantaila, 29"tako TB, VHS magnetoskopioa, gela guztietan
- Interneta eta posta elektronikoa ikasle zein irakasle guztientzako
- Bideokamerak, e.a.

Ekipamenduaz gain, bi trebatzaile ditugu. Hau da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzen ari diren ikasle zein irakasleei, aholkuak emanez eta lanean bertan lagunduz, teknologia hauen erabilera errazten zaie eta euren maila hobetzeko aukera ematen zaie.

Fakultatean ematen diren karrera desberdinetako lehenengo urtean Oinarrizko Informatikaren inguruko jakintzagai ematen da. Jakintzagai honek 4,5 kreditu ditu eta nagusiki, praktikoa da. Hauexek dira bere helburuak:

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietara hurbiltzea
- Gutxienezko ezagutza teknikoak lortzea, beti ere erabiltzaile gisa, beraien eguneroko bizitzara aplikatuz.
- Informatikaren inguruan alfabetatzea

Lantzen ditugun edukiak:

- PC bat nolakoa den eta azpian dagoen oinarritzko teoria jakin.
- PCn Windows 95-98 sistema eragilea "erabiltzaile arrunta" gisa erabiltzea, beldurrak galduz.
- Sare informatikoan lan egiteko gaitu.
- Beharrezko informazioa Internet eta antzeko sistemetan bilatzeko gaitu.
- Posta elektronikoa erabiltzen gaitu.
- Testu prozesadoreak nola erabili, bereziki Microsoft Word. Ikasketan zehar egin beharreko lanak PCan egitea eta bi erataria entregatzea: paperean eta disketean.

Horrezaz gain, irakasleentzako ikastaroak prestatzen ditugu, beharrak sortzen diren araberak edota proiektu berriek eskatzen duten arabera.

Hala ere, nahiz eta irakasleek Teknologia Berriak erabili, beren edukiak prestatzerakoan eta azaltzerakoan edota ikasleek beren lanak ordenadoreak erabiliz egin, 1997-98 ikasturtearen hasieran, beste aurrerapausoa eman nahi izan genuen: jakintzagai baten irakaskuntza ia osoa Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan oinarritu. Eta ingelesa izan zen jakintzagai hori.

## **TEKNOLOGIA BERRIAK ETA ATZERRIKO HIZKUNTZA UZTARTZEN**

Ikasleak gure Fakultatera datozenerako, gutxienez, zazpi urtez egon dira atzerriko hizkuntza ikasten. Hala eta guztiz ere, honen erabilpen maila oso urria da; beraz, ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzeko ondoren agertzen diren helburu nagusiak finkatu ditugu:

- Hizkuntzaren erabilera bermatzea komunikazio-egoera esanguratsuak sortuz.
- Hizkuntzaren erabilpena sistematizatzea hizkuntzari buruzko hausnarketa bultzatuz.

Helburu hauek lortzeko bide bat tresna elektronikoetan aurkitu dugu; tresna elektronikoak aipatzen ditugunean cd-rom, internet eta e-mail-ari buruz ari gara eta ondorengo lerroetan hauen erabilpena azaltzen saiatuko gara. Proiektu berri hau joan den ikasturtean jarri genuen abian.

### **CD-ROM-en erabilera**

CD-ROMek hizkuntzaren trebetasunak modu errealean integratzea suspertzen dute, hau da, hauek erabiliz posible da entzutea, irakurtzea, idaztea eta hitz egitea. Halaber, hizkuntza dela bide, ikasleek arlo desberdinetako ezagupenak eskuratzeko abagune paregabea dute; era horretan "content-based teaching" deritzana indartzen da (Met, 1996). Modu berean, motibazioa (Gardner, 1985) pizten da, ikasleak, ez ohiko tresnak erabiliz, atzerriko hizkuntzaz jabetuaz joaten direlako.

Bestalde, CD-ROMen mekanika ikastea oso erreza da cd-rom gehienak "user-friendly" direlako, beraz ikasleek ez dute inongo arazorik izaten entziklopedia elektronikoa hauek erabiltzeko. Dena den, CD-ROMak dituen abantailak maximizatzeke, irakasleok oso ondo planifika-

tu behar dugu prozedura. Gure Fakultatean ikasleek proiektuak burutzen dituzte. Ondorengo lerroetan gure Fakultatean abian jarri dugun prozesua azalduko dugu.

Lehenengo urratsa izan da, merkatuan irakaskuntzarako komertzializatzen diren CD-ROMak aztertzea eta horietatik gure ikasleentzak interesgarriak izan daitezkeenak aukeratzeta. Adibidez:

- Cinemania 97                      Microsoft
- Encarta 97                         Microsoft
- Women's rights                    News multimedia
- Art Gallery                         Microsoft
- Music Central 97                 Microsoft

Gaia eta hizkuntzaren maila aztertu ondoren, sailkapen bat egin dugu: menu bat osatu dugu oinarrizko maila duten ikasleentzat eta beste bat erdiko maila dutenentzat. Adibidez:

---

**OINARRIZKO MAILA**

---

**CD-ROM**

**WHO**

**WHAT**

---

Musical instruments  
 Encyclopedia of nature  
 The ultimate human body  
 Central music  
 The Times exposures: how things change  
 .....

---

**ERDIKO MAILA**

---

**CD-ROM**

**WHO**

**WHAT**

---

Women's rights  
 Planet Earth  
 Encarta 97  
 Chronicle of the 20<sup>th</sup> century  
 History of the World  
 .....

---

Ikasleak euren gustuko den CD-ROMa aukeratu eta binaka jartzen dira. Ondoren, CD-ROM horrek proiektuak burutzeko duen potentziala aztertu egiten dute eta horixe izango da ikasturteko lehenengo proiektua. Gure ikasleak bideratzeko eredu bat ematen diegu. Hona hemen adibidea:

---

**CD-ROM: ENCYCLOPEDIA OF NATURE**

---

**PROIEKTUAK EGITEKO PROPOSAMENAK:**

---

- Energia iturriak erakutsiz orri informatiboa prestatzea ikaskideei erakusteko.
  - Kutsadurari buruzko hitzaldi bat prestatzea ikaskideentzat.
  - Naturarekin loturiko hitzekin hiztegia prestatzea umeentzat.
  - Landareei buruzko informazioa jaso eta albuma prestatzea umeentzat.
  - Hormirudia prestatzea animalien familiak, garapena... erakusteko
  - Gidaliburu bat osatzea gazte bati CD-ROM honi buruzko argibideak emateko.
-

---

**Personal opinion:**

We think this cd-rom ..... (interesting/not very interesting; useful/ not useful; suitable for people .....; difficult to use because .....

Moreover, if you ..... (more information) .....

Finally, here is a piece of advice... / are some suggestions to .....

Signature,

---

Lana bukatzeko eta entregatzeko epea negoziatu egiten da. Prozesu honetan, irakaslearen rola ikasleak bideratzea, laguntzea eta sortzen diren hizkuntza beharrak aztertzea da. Era berean, irakasleak gelan dauden hiztegiak erabiltzera bultzatzen ditu ikasleak.

Ikasturteko lehenengo proiektu honetan irakaslearen jarrera oso baikorra eta gogotsua izan behar da; izan ere, ikasleek ez dute ohiturarik izaten era honetako lanak gauzatzeko.

Bigarren proiektua, ikasleek proposaturiko proiektuetatik bat aukeratu, egin eta gelakideen aurrean aurkeztea da. Kasu honetan ere epea negoziatu egiten da. Gelako hormetan taula bat jartzen da norik zer egingo duen adierazteko. Hona hemen joan den ikasturtean ikasleek egindako proiektu batzuk:

- A painter: Picasso
- Rock revolution
- Kenya & The United Kingdom
- Aquatic mammals

Bigarren proiektu honetan ere azpimarragarria da irakaslearen rola. Ikasleek behin eta berriro esango dute, ohiturarik eza dela eta, ez dutela baliabide linguistikorik aurkezpena egiteko. Irakasleak aurkezpena erazteko euskarriak eskainiko dizkie, esate baterako, transparentziak. Transparentzietan, hizlariak hitzaldiaren egitura jarriko dute ikaskideek komunikazioa erraz jarrai dezaten. Irakasleak, halaber, feedbacka ematerakoan, hitzaldiaren alderdi positiboak azpimarkatuko ditu ikasleak konturazteko gai direla atzerriko hizkuntza erabiltzeko eta are gehiago, hitzaldi bat emateko hizkuntza horretan.

Hitzaldiaren markoan sortzen diren behar linguistikoei aurre egin behar izaten dizkiete irakasleek; behar indibidualak direnean “work-pack-ak” eskaintzen zaizkie; komunak direnean, saio osagarriak antolatzen dira.

Gure proiektua berria denez, urte bat, oso denbora mugatua izan dugu ikasleen aurrerapen kuantitatiboak baloratzeko. Lehenengo urteko lana estrategiak garatzeko baliogarria izan da baita ohiturak finkatzeko eta ikasleen hizkuntzaren erabilereko jarrera positiboa suspertzeko ere. Datorren urteetako esperientzian gai izango gara goian aipaturiko helburuak lortu ditugun edo ez egiaztatzeko.

**Internet-en erabilera**

CD-ROMarekin proiektuak burutu ondoren, ikasleei internet-a erabiliz proiektuak egiteko aukera eskaintzen diegu. Aldez aurretik “menua” prestatzen dugu web-gune batzuen helbideak erakutsiz. Aukeraturiko web-guneez hezkuntza, kultura, giza edo alsialdiko gaiakin zerikusia dute. Hona hemen adibide batzuk:



<b>IZENA</b>	<b>URL HELBIDEA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>
Hollywood	www.hollywood.com	Egin diren azken filmei buruzko informazioa
New Zealand information	www.gisnz.com	Zeelanda Berriko bizimodua
The Guardian	www.guardian.co.uk	Bretaina Handiko egunkaria
Washington Post	www.washingtonpost.com	Estatu Batuetako egunkaria
National Geographic	www.nationalgeographic.com	Aldizkaria interesgarria
Tourism	www.travlang.com/languages	Hizkuntza ezberdinak turistentzako
Greenpeace	www.greenpeace.org	GKE edo ONG
Songs	www.lyrics.ch	Kantak

Ikasleek bi saio behar izaten dituzte web-guneetan murgildu eta dagoen informazioa aztertzeko. Aldi berean, ikasle batzuk, eurei interesatzen zaien informazioaren bila hasten dira eta aurkitzen dituzten web-guneen helbideak gelan dagoen menuan jartzen dituzte. Jarduera honen ostean, ikasleek binaka, proiektu bat proposatzen dute; epea negoziatzen da eta CD-ROMekin goian aipaturiko prozedura jarraitzen dute.

Interneta erabiltzean ere, oso garrantzitsua da irakaslearen eskuhartzea; batzuetan ikaslearen frustrazioa bideratzeko, eta, beste batzuetan, ikasleei lana eginarazteko. Munduan zehar interneten erabilpena oso hedatua dagoela-eta, batzuetan honen funtzionamendua oso astuna bihurtzen da. Bestalde, ikasleek interneten nabigatzeko behar diren estrategiak garatzen dituztenean, eta informazio autopista horretan murgiltzen direnean, arrisku bat sor daiteke: helburuak eta epeak zehazten ez badira, ikasleek eman dezakete denbora web-gune batetik bestera mugitzen, ezer burutu gabe.

Etorkizunari begira, interneten erabilera ikaste prozesu osoan integratzea izango da erronka, ez dadin izan hizkuntza arloan bakarrik erabiltzen den baliabidea, baizik eta tresna erabilgarria, edozein ikasgaitan kontuan izatekoa. Era horretan hizkuntzaren erabilerari bul-tzada bat emango genioke, gainera, xede erreal batez.

### **Posta elektronikoaren aukerak**

Azken urteotan munduan zehar ugaldu egin dira hezkuntza esparruan e-maila erabiliz eginitako esperientziak (Warschauer, 1995). Batzuk irakaslearen arteko harremanak sendotzeko izan dira, beste batzuk gela baten barruan komunikazioa indartzeko edo nazioarteko harremanak suspertzeko. Era berean, ikasketak "distantziak" egiteko ere hainbat proiektu jarri dira abian. Gure Fakultatean ikasle-ikasle eta ikasle-irakasle arteko komunikazioa errazteko erabiltzen dugu. Dena den, ikasturte honetan nazioarteko harremanak suspertzeko hasiko gara erabiltzen. Laister, gure ikasleek, beste herrialde batzuetako unibertsitatekin komunikatzeko aukera izango dute. Beste esperientziak irakurri ondoren (ibis. Warschauer) ziur gaude posta elektronikoak aukera paregabea eskaintzen duela hizkuntza erabiltzeko eta, aldi berean, kulturak ezagutzeko zein giza harremanetarako trebetasunak garatzeko, bederen.

### **Ondorioak**

Goian azaldu dugunez, gure lehenengo erronka izan da Fakultatean genituen gabeziak estaltzea. Horretarako, joan den ikasturtean, teknologia berriak erabiltzeko behar diren azpiegitura eta tresnak ezarri genituen.

Ondoren, teknologia berrien ezaguera tekniko eta alfabetizazioa gure ikasleengana zabalduta genuen. Ikasle guztiek oinarriak jaso zituzten teknologia berriez aritzeko gai zitezten.

Formazio hau egin eta gero, teknologia berrien erabilera ziurtatzeko ikasgai batean integratu genuen, atzerriko hizkuntzan, hain zuzen; aldi berean, atzerriko hizkuntzaren erabilera maximizatzea helburutzat finkatu genuen abian. Gure herrian, euskararen normalizaziorako erabilerak duen garrantzia ikusiz eta Swain-en Output Esanguratsua-ren Hipotesiari arretaz jarraituz (Swain, 1985), erabilera hizkuntza garatzeko funtsezkoa dela garbi eta argi dugu.

Arestian esan dugunez, esperientzia honen emaitza akademikoak ez ditugu kuantifikatu baina, urtean zehar, jarraipen zehatza egin dugu. Irakasleei dagokienez, teknologia berriak erabiliz proiektuak bideratzen ikasi dugu metodologia bat sortuz eta era berean, metodologia horrek dituen hutsuneak konpontzen saiatu gara, behin eta berriro irakaste-ikaste prozesua aztertuz. Ikasleei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren erabilerari bultzada bat ematea lortu dugu, ikasleei hortarako gai direla erakutsiz. Era berean, ikasleek teknologia berriak informazioa elkartrukatzeko eta komunikaziorako erabiltzen ohitu dira, hauen erabilera Fakultateko eguneroko bizitzan integratuz.

Epe laburrera ikusten ditugun erronkak hauek dira:

- Posta elektronikoaren erabilera sistematizatzea beste herrialde batzuetako ikasleekin harremanetan jartzeko.
- Teknologia berriak integratzea hainbat ikasgaitan.

Orain dela hamabost urte Irakasle Eskolan Teknologia Berrietan hasitako bidea, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea deritzanean jarraitu egiten dugu. Jorrraturiko bidea gure ikasleen formakuntza pertsonala, soziala eta profesionala sendotzeko eta aberasteko asmoarekin egin dugu, etorkizunean errekurtsu anitzak dituzten profesionalak izateko eta gizarteari aportazioak eta emankortasuna ekartzeko gaituak.

## BIBLIOGRAFIA

- GARDNER, R.C. (1985). *The social psychology of language: the role of attitudes and motivation*. London: Edward Arnold.
- MET, M. (1996). Integrating language and content: issues to consider. *Ikastaria*, 9: 57-64.
- SWAIN, M. (1985). Communicative competence: some roles of comprehensible input and comprehensible output in its development. En S.M. Gass y C.G. Madden. *Input and second language acquisition*. Rowley, MA: Newbury.
- WARSCHAUER, M. (1996). *E-mail for English teaching*. Honolulu: University of Hawai'i Press.
- WARSCHAUER, M. (1996). *Virtual connections*. Honolulu: University of Hawai'i Press.